

IBILBIDEA // ETAPAK



IPARRALDEA

Hanoi - Mai Chau - Moc Chau
- Son La- Vu linh - Sapa - Lao
Cai - Bac Ha - Ha Giang -
Tam Son - Dong Van - Meo
Vac - Cao Bang - Hanoi

HEGOALDEA

Hanoi - Cat Ba - Bahia Halong
- Ninh Binh (tam Toc) - Vinh
- Dong Hoi - Hue - Da Nang -
Hoi An - Nha Trang - Dalat -
Mui Ne - Ho Chi Minh

JAKIN BEHARREKOAK

NON Vietnam

DATA 2017ko urria

AKTIBITATEA Motorrean Vietnamdik

EGONALDIA 4-5 aste

DOKUMENTAZIOA Pasaportea behar da. Hanoiko sarreran VISA bat ordaintzen da, 40 dolarrekoa.

TXANPONA Vietnamgo Dong-a. Euro 1 = 26.500 dong (bai, Vietnam-en aberatsa zara!)

HAN MUGITZEKO Motorra. Bestelakoan, autobusa eta itsasontzia.

DISTANTZIAK Eguneke 200 bat kilometro. Geltokirik gabe, 3-4 ordutan egin daitezke.

OSTATUA Etxe partikularrak, ostatuak eta kanpinak. Vietnam iparraldean etxe partikularretan hartu nuen ostatu. Oso gutxitan ordaindu nuen. Seme-alabekin ingelesez hitz egitearen truke konformatzen dira. Ostatu batean logela partekatuak 3-5 dolar balio du eguneke. Mendian edo hondartzaren batean lo egin nahi bada, eltxoen erasotik babesteko sarea erabiltzea derrigorrezkoa da.

OTORDUAK 2-3 dolar kaleko salmenta tokietan // 5-10 dolar jatetxeetan

GARAGARDOA Bia Hoi da Vietnamgo garagardo ezagunena, munduko presio garagardo merkeena. Ostatu askotan doan ematen dute. Turismotik urrun, baso bat garagardo edan daiteke 0.10 €-ren truke, eta gunee turistikoetan 0.5-1 €.

MOTORRA Hanoin erosi nuen, 210 dolarren truke. Bidaia bukatu ostean saldu nuen, 20 dolar merkeago. Vietnamen oso erraza da motorrak erosi eta saltzea. Ez dago asegururik, eta behar den bakarra da motorra erostean ematen dizuten agiri urdin bat (motorraren agiriak). Motorreko gastuak: Erregaia 5 dolar 200 kilometroko; 1.000 kilometro egitean beste bost dolar olioan. Katearen haustura 2/3 dolar. Gurpileko ordeztoko kamera 2/3 dolar. Beharrezkoa da gida baimena izatea, baina agintariak ez dira oso zorrotzak. Arazoren bat edukiz gero, nahikoa da dolar batzuk ordaintzea, aurrera jarraitzeko.